

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2963

AGINDUA, 2014ko ekainaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten zaie Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak irakasten dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei, 2014-2015 ikasturtean irakasleak prestatzeko jarduerak egin ditzaten.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 17. artikulua Heziketako eta Ikaskuntza Zuzendaritzari esleitzen dizkion egitekoen artean daude Lanbide Heziketako Irakasleentzako Etengabeko Prestakuntza Plan bat diseinatzea, aplikatzea eta haren jarraipena egitea, bai eta plana eguneratu eta espezializatzea ere.

Hori dela-eta, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak prestatu egin behar du Lanbide Heziketako Irakasleen Prestakuntza Plan bat, eta hor, batetik, Lanbide Heziketaren funtzionamendu egoia ekarriko duten irakasle gaituak bermatzeko prestakuntza-proposamenak egin, eta, bestetik, prestakuntza errazteko bideak zabaldu behar dira, betiere jardunean diren irakasleek agertu eta aurkeztu dituzten eskaerekin bat etorritik.

Ildo horretatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila jakitun da ikastetxeetan hezkuntza-prestakuntza eta -berrikuntza lotuta daudela laneko testuinguruarekin, eta testuinguru horrek erraztu egiten duela profesionalak zuhur eta kritiko izatea eta euren jardun-arloan ikerketarako gogoia izatea. Horregatik, sail horrek prestakuntza-jarduerak sustatu nahi ditu Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak emateko baimen ofiziala duten ikastetxeetan, zehazki otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren bidez araututakoetan, irakaskuntzaren kalitatea hobetze aldera gelako jardunari eta koordinazio pedagogikoari dagokienez (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua, Hezkuntza-sistemaren barruan Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena).

Prestakuntza-jarduera horietarako deialdia urtero egiten bada ere, beti ez dute jarraikortasunik izan, ikastetxe batzuek urtero jarduerarik aurkezten ez dutelako, edo prestakuntza-jarduerak nabarmen aldatzen direlako ikasturte batetik bestera. Bestalde, Kalitate Sistemaren betekizunetako bat da prestakuntza-beharrak antzematea epe ertainean, eta ikastetxeetarako Prestakuntza Plan bat prestatzea. Beraz, prestakuntza-jardueretarako deialdia urtero egin arren, halako jardueren filosofia epe ertainekoa da, helburua izanik etengabeko prestakuntza-lerro bat sendotzea.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 48.2 artikulua oinarri hartuta (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako testu bategina), diru-laguntzat hartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Aurrekontu Orokorraren kontura funts publikoak doan jartzea EAEko erakunde-administrazioaren parte ez diren pertsona edo erakunde pribatuen eskura.

Horregatik guztiagatik, eta Lanbide Heziketako sailburuordeak proposatuta, honako hau

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA

DEIALDIAREN XEDEA ETA BALDINTZAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da diru-laguntzak lehiaketa bidez emateko modua arautzea, Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak irakasten dituzten irakasleak prestatzeko jarduerak itunpeko ikastetxe pribatuetan egiteko 2014-2015 ikasturtean.

2. artikulua.– Prestakuntza-jardueretarako baldintzak.

1.– Zuzendaritza-taldeak dauka prestakuntza-jarduerak atontzeko ardura. Zeregin horretan, inplikaturako irakasleek nahiz irakasle horiek eskuordetutako batzorde batek emandako datuak erabiliko ditu zuzendaritza-taldeak, edo, bestela, bere ekimenez jardungo du.

2.– Deialdi honen xede diren prestakuntza-jarduerak ikastetxe bateko irakasle guztien edo irakasle-talde baten interes edo beharretan izango dute abiapuntu, eta helburu izango dute haien garapen profesionala lortzea eta irakaskuntza-jarduera hobetzea. Irakasleek berek definituko dituzte zein diren interes eta behar horiek, eta ikastetxeko dagozkien organoek onartuko dituzte.

3.– Prestakuntza-jarduerak 2014-2015 ikasturtean ikastetxe bakoitzean ematen diren prestakuntza-zikloei lotuta egon behar dute.

4.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenak irakasle izango dira diruz lagundutako ikastetxean. Era berean, baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikastetxeek prestakuntza-jarduera komunak (ikastetxe-arteak) egin ahal izango dituzte:

a) Txikiak izateagatik eta/edo aurkezten dituzten jardueren ezaugarriengatik, batera jardun behar duten ikastetxeak izatea.

b) Inguru bereko ikastetxeak izatea, edo lanbide-arlo bereko prestakuntza-zikloak ematea.

5.– Ikastetxe bakoitzean gehienez ere zortzi prestakuntza-jarduera lagun daitezke diruz, eta eskaera berean aurkez daitezke. Kopuru horretan ez dira kontuan hartuko ikastetxe-arteak jarduerak. Jarduera berean talde-bikoiztasuna gertatuz gero, jarduera-bikoiztasuna dagoela ulertuko da.

6.– Prestakuntza-jardueretan, arau orokor gisa, proposaturako prestakuntzarekin zerikusia duten moduluak ematen edo emango dituzten gutxienez zortzi irakasle parte hartu behar dute. Ikastetxe batean kopuru horretara iristen ez badira, ikastetxe-arteak jarduera moduan aurkeztu beharko da.

Jarduera gehienez ere lurraldeko bi ikastetxetan ezarrita dagoen prestakuntza-ziklo bati bada-gokio, orduan soilik aukeratu ahal izango dira zortzi irakasle baino gutxiagoko jarduerak.

7.– Prestakuntza-jarduera bakoitza gutxienez 10 ordukoa izango da, eta gehienez 35ekoa.

8.– Nahitaezkoa da prestakuntza-jarduerak diru-laguntzarik jaso ez izana deialdiaren aurreko ondo-ondoko bi ikasturteetan, ikastetxe berean eta titulu berarekin edo eduki berekin. Ez da ulertuko titulu bera dutenik urte anitzeko (gehienez ere hiru urteko) prestakuntza-jarduera bateko mailek, ondo-ondoko zenbait ikasturtetan egiten badira.

3. artikulua.– Erakunde onuradunen baldintzak.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradun izan ahal izango dira EAEn Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak emateko baimen ofiziala duten itunpeko ikastetxe pribatu guztiak.

2.– Ikastetxe onuradunek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituztenak betetzeari dagokionez.

Laguntzen erakunde eskatzaileek betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, horretarako eskatzaileen baimenik behar izan gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluaaren bigarren paragrafoak xedatutakoa aplikatuz (Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen azken xedapenetatik hirugarrenak gehitutakoa).

3.– Erakunde onuradunei diru-laguntzak eta laguntzak emateko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzengatik edo diru-laguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak.

4.– Ezingo dira deialdira aurkeztu laguntzak edo diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzarekin zigortuta daudenak, edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginean daudenak, ez eta sexu-bazterkeriagatik zigortuta daudenak ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

4. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

169.600 euro baliatuko dira agindu hau garatzeko. Zenbateko oso hori handitu ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen zenbateko totala kontuan harturik, baldin eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Diru-laguntzen ebazpena eman aurretik egin ahal izango da aldaketa hori. Horren berri Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emango du ebazpen baten bitartez.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Soil-soilik gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Ikastetxe eskatzailekoak izan gabe prestakuntzan aditu diren pertsonak edo erakundeak kontratatzearen ondoriozkoak.

- Prestakuntza-jardueretarako material espezifikoak erostearen ondoriozkoak.

2.– Ezingo dira diruz lagundu aurreko zenbakian sartuta ez dauden gastuak; zehazki, honako hauek:

- Ekipamenduen inbertsioa edo amortizazioa.
- Inplikaturako langileen lekualdaketak.
- Ikastetxearen funtzionamendu-gastu arrunta.
- Lokalen kudeaketa- edo alokairu-gastuak.

- Gauzatzearen ondoriozkoak diren beste batzuk: matrikulak ordaintzea, prestakuntzan aditu direnen egonaldiak...

6. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diru-laguntza aukeratutako prestakuntza-jarduerei dagokien aurrekontuaren defizitaren % 100 ere izan ahal izango da, eta ikastetxeko gehieneko muga 32.000 euro izango da, eta emandako prestakuntza-ordu bakoitzekoa 110 euro.

7. artikulua.– Bateragarritasuna beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak ematea bateraezina izango da erakunde publiko edo pribatuen beste edozein diru-laguntzarekin, baldin eta xede bera badute; zehazki, hobekuntza-planei, curriculumari eta oinarrizko gaitasunen garapenari zuzenean lotutako prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza-berriztapenerako proiektuak aurkezteko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak kudeatutako deialdiaren bidez diruz lagundutako jarduerak ezingo dira diruz lagundu.

II. KAPITULUA

ESKAERAK, AUKERAKETA ETA PROZEDURA

8. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesa duten erakundeek baliabide elektronikoak erabiliz egingo dituzte eskaerak, kontsultak eta izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute, batetik, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak –Administrazio Elektronikoari buruzkoak–, eta, bestetik, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariak 2006ko otsailaren 9an emandako Ebazpenak, hain zuzen ere, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– onartzen duenak.

3.– Honako egoitza elektronikoa honetan zehazten da nola izapidetu eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/ikpp/es

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz: <http://www.euskadi.net/misgestiones>

9. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskaerak modu elektronikoa aurkeztu beharko dira Euskadi.net-en egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.net/dirulaguntza/2014/ikpp/y22-izapide/eu>).

3.– Ikastetxearen legezko ordezkariari dagokio eskaera egitea, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariari zuzenduta.

4.– Eskaerak eta haiei gehitutako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, ikastetxeak zer nahi duen. Era berean, eskaera egin duen ikastetxeak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, hala ezarrita baitago azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan (10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea).

5.– Ikastetxe eskatzailea ez badago alta emanda Ogasun eta Finantzetako Sailaren Hirugarren Erregistroan, izapide hori bide elektronikoa erabiliz egin beharko du:

http://ogasun.ejgv.euskadi.net/r51341/es/contenidos/información/regtelter_infor/es_rtt/infor.html

Gune elektroniko horretan, bertan dauden datuak aldatu ere egin ahal izango du. Ofizioz aztertuko da erakunde eskatzailea alta emanda dagoen erregistroan.

10. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Ikastetxe eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1.– Eskaera-inprimakia, behar bezala beteta.

2.– Eskaera eginda, diruz lagundu nahi diren prestakuntza-jardueren zerrenda, jarduerak lehen-tasunen arabera adierazita; bertan, oinarrizko informazioa adieraziko da (A1 inprimakia).

3.– «Prestakuntza-jardueraren fitxa» inprimaki normalizatua (A2 inprimakia), proposatutako jarduerara bakoitzeko.

4.– «Klaustroaren akta» inprimaki normalizatua; bertan, berariaz jasoko da klaustroak prestakuntza-jardueren berri baduela, eta bere gain hartzen dituela jarduera horiek parte hartzaileengan izan ditzakeen ondorio pertsonalak eta ikastetxearen barne-antolamenduan izan ditzakeenak (A3 inprimakia). Ikastetxe-arte-ko prestakuntzaren kasuan, ikastetxe bakoitzak «Klaustroaren akta» inprimakia aurkeztu beharko du.

5.– Ikastetxe-arte-ko prestakuntza-jardueren kasuan, «Ordezkaritza ematea» inprimaki normalizatua (A4 inprimakia).

6.– Ikastetxearen prestakuntza-plana, hautu hori eginez gero, balorazio-irizpideen arabera puntuatua izan ahal izateko.

11. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzak lortzeko eskabideak oso-osorik betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera aurreko artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta, gainera, esango zaio aurrekoa egin ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera izan beharko duen ebazpena eman ondoren.

12. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzen dituen organoa.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza izango da agindu honetan araututako laguntzen organo kudeatzailea.

13. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Jardueren balorazioa, 14. artikuluan xedatutako irizpideen arabera, honako hauek kide izango dituen batzorde batek egingo du:

– Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria; lehendakaria izango da.

– Lurralde-ordezkaritza bakoitzeko teknikari bat, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak izendatua.

– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari-lanetan jardungo duena; hitza eta botoa izango ditu.

14. artikulua.– Balioespeneko irizpideak eta esleipeneko prozedura.

1.– Prestakuntza-jarduerak banan-banan baloratuko dira, deialdi honetako betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, eta irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Alderdi orokorrak (gehienez 3 puntu).

- Justifikazioa eta helburuak.– 0,5 puntu, gehienez ere.
- Helburuak.– 0,4 puntu, gehienez ere.
- Edukia.– 0,4 puntu, gehienez ere.
- Irakasten duen entitatea edo prestakuntza-arloko aditua.– 0,4 puntu, gehienez ere.
- Parte hartzen duten irakasleen administrazio-egoera.– 0,3 puntu, gehienez ere.
- Jardueraren ebaluazioa.– puntu 1, gehienez ere.

b) Ikastetxeko irakasleak prestatzeko planean txertatutako prestakuntza-jarduera (gehienez 4 puntu). Honako puntuazio hauek batuko dira:

○ Ikastetxeak bere irakasleak prestatzeko plana aurkezten badu, eta planak gutxienez bi urterako balio badu, 0,5 puntu.

○ Ikastetxeko irakasleak prestatzeko planak barne hartzen badu sail guztietako irakasleen prestakuntza-beharrak antzematea, puntu 1.

○ Orobat, ikastetxeko irakasleak prestatzeko planak barne hartzen badu planaren eta aurreikusitako prestakuntza-jardueren ebaluazioa, puntu 1.

○ Prestakuntza-planak barne hartzen baditu, halaber, ikastetxeak hartu dituen behin-behineko irakasleentzako edo ordezkari irakasleentzako prestakuntza-ekintzak, puntu 1.

○ Eskatutako prestakuntza-ekintza ikastetxeak 2014-2015 ikasturtean irakasleak prestatzeko daukan planean aurreikusitako jardueretan sartzen bada, 0,5 puntu.

c) Ikastetxeak prestakuntzaren arloan izandako ibilbidea eta prestakuntza-planaren jarraitutasuna (gehienez puntu 1).

○ Ikastetxeak aurreko ondo-ondoko bi deialdietan diruz lagundutako jarduera guztiak ongi garatu baditu, puntu 1 gehituko da.

○ Aurreko ondo-ondoko bi deialdietan hasieran diruz lagundutako baina garatu gabeko edo gaizki garatutako jarduera bakoitzeko, 0,25 puntu kenduko dira.

d) Ezarri berriak diren prestakuntza-zikloekin lotutako jarduerak (puntu 1).

e) Ikastetxe-arteko prestakuntza-jarduerak eta/edo bestelako prestakuntza-biderik ez duten prestakuntza-zikloetakoak eta/edo EAEn ezarri berriak diren zikloetakoak eta/edo ziklo berezieta-koak (gehienez 2 puntu).

○ Ikastetxe-arteko prestakuntza-jarduera bat izateagatik, puntu 1 gehituko da.

○ Gertatzen den beste edozein inguruabarrengatik, 0,5 puntu gehituko dira.

f) Euskaraz garatzekoak diren prestakuntza-jarduerak (2 puntu).

g) Aurrekontua (gehienez 2 puntu). Aurkeztutako aurrekontuaren egokitasuna, orduko eta plazako kostu unitarioari dagokionez. Kostua zenbat eta handiagoa, puntuazioa txikiagoa.

2.– Prestakuntza-jarduerak baloratu ondoren, ordenatu egingo dira, I. puntuko baremoaren arabera lortutako guztizko puntuazioa kontuan hartuta.

Emandako puntuazioan berdinketa gertatzen bada, lehentasuna emango zaie euskaraz egingo diren jardueri; ondoren, ikastetxe-arte jardueri, ikastetxeko jardueren aurretik; eta, hirugarrenik, parte-hartzaile bakoitzeko ordu-kostu txikieneko jarduerari.

3.– Puntuaziorik onena lortu duten prestakuntza-jardueri soilik emango zaie diru-laguntza, deialdi honetara bideratutako aurrekontu-kredituak edo indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuetan egindako eguneratzeetatik ateratzen direnak agortu arte.

4.– Gutxienez 6 puntu lortzen dituzten prestakuntza-jarduerak jaso ahal izango dituzte laguntzak, gaztelaniaz egiten badira; eta gutxienez 7 puntu lortzen dituztenek, euskaraz eginez gero.

15. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazpen-modua eta publizitate-prozedura.

Aurkeztutako eskabideak prozedura bakar baten bidez izapidetuko dira, eta haiei buruz ebaztea, ikastetxe interesdunek azaldutako gai guztiak erabakita, Lanbide Heziketako sailburuordeari dagokio, ebaluazio-batzordeak proposatuta.

Aipatu ebazpenak ez du amaitzen administrazio-bidea, eta gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da haren aurka Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, hilabete bateko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraiki.

Ebatzitakoa banan-banan jakinaraziko zaie ikastetxe interesdunei bide elektronikoak erabiliz, honako honen bidez: <http://www.euskadi.net/misgestiones>; horrek ez du eragotziko hura Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea publizitate-ondorioetarako.

Ebazteko eta ebatzitakoa ikastetxe interesatuei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epea igarotakoan, aipatutako jakinarazpena egin ez bada, interesdunek eskaera ezetsizat jo ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

16. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, emandako laguntza osoaren % 40, laguntza onartu ondoren ordainduko da, 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Gainerakoa (% 60), berriz, justifikazioa 20. artikuluan adierazitako epean eta baldintzetan aurkeztu ondoren.

17. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak, eta, hala egokituz gero, helburu bererako edozein diru-sarrera edo baliabide lortzeak, berekin ekarri ahal izango du ebazpena aldatzea, betiere haren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Ondorio horietarako, Lanbide Heziketako sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren kopurua doitu egingo da, edo, hala egokituz gero, jasotako gehiegizko diru-kopurua itzultzeko aginduko da.

18 artikulua.– Ez betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Honako hauetakoren bat gertatuz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela eta, hala egokituz gero, jasotako zenbatekoa gehi dagokion interesa Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola deklaratu da:

a) Ikastetxe onuradunak aurkeztutako azken memoriatik ondorioztatzea jarduerak ez dituela lortu diruz lagundutako proiektuan proposatutako gutxieneko helburuak.

b) Agindu honetan eta hura garatzen duten ebazpenetan xedatutako edozein betebeharrak edo baldintza ez betetzea.

c) Ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen konturako diru-laguntzen onuradunen edozein betebeharrak. Betebeharrak horiek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan jasota daude.

d) Aldi berean, erakunde publiko edo pribatuaren beste edozein diru-laguntza jaso izana.

2.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesa eskatzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Errege Dekretu Legegileak onartutako testu bategina) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeen eta horiek itzultzearen erregimen orokorra arautzen duena) II. tituluan xedatutakoari jarraituko zaio.

III. KAPITULUA

IKASTETXE ONURADUNEN BETEBEHARRAK, JUSTIFIKAZIOA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA ZIURTAPENA.

19. artikulua.– Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradun diren ikastetxeek, nolani ere, honako betebeharrak hauek dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, erakunde onuradunek, esleitzeko erabakia jakinarazi eta hurrengo hamabost eguneko epean berriaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

2.– Diruz lagundutako prestakuntza-jarduerak sartzea ikastetxearen 2014-2015 ikasturterako urteko planean; jarduera horiek ere egongo dira ikastetxeak urte horretarako izango duen prestakuntza-planaren barruan.

3.– Diruz lagunduko den prestakuntza-jarduera bakoitzean aurreikusitakoaren arabera parte hartuko duten irakasleen behin betiko zerrenda eta behin betiko egutegia bidaltzea 2014ko urriaren 31 baino lehen.

4.– Idatziz erregistratzea kasuan kasuko saioaren aktan (B2 inprimakia) irakasle-taldearen prestakuntza-jardueraren emaitzak. Azken akta itxia izango da, eta gerora ezin izango zaio ezer aldatu,

errakuntzak edo aipatu gabeak izan ezik; edonola ere, aldaketak ondo justifikatu beharko dira agiri bidez.

5.– Prestakuntza-saioetara bertaratutako pertsonen sinadurak kontrolatzeko orria pasatzea (B2 bis inprimakia); orri hori eranskin gisa gehituko zaio 4. puntuan deskribatutako aktari.

6.– Emandako diru-laguntza justifikatzea 20. artikuluan jasotakoaren arabera.

7.– Diru-laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

8.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.2 artikuluan xedatutako gainerako betebeharrak guztiak betetzea; zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, laguntzen xedea fiskalizatzeko dituzten funtzioetan jardunez, eskatzen duten edozein informazio ematea.

20. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Ikastetxe onuradunek, 2015eko ekainaren 16a baino lehen, <http://www.euskadi.net/misgestiones> helbidea erabiliz, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Diruz lagundutako jardueren guztien memoria ekonomikoa (B1 inprimakia).

b) Hartu-agirien, fakturen eta, lege onartuta egonda, emandako diru-laguntzari egotz dakiokeen beste edozein gastu-frogagiriaren kopiak.

c) Prestakuntza-ekintza bakoitzaren amaierako akta, kasuan kasuko sinadurak kontrolatzeko orriak erantsita (B2 eta B2 bis inprimakiak).

d) Amaierako ebaluazio-memoria: prestakuntza-ekintza bakoitzaren garapena eta hartan lortutako emaitzak jasoko ditu, kuantifikatuta eta aurreikusitako helburuekin alderatuta (B3 inprimakia).

21. artikulua.– Jarraipena.

1.– Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritzak diruz lagundutako jardueren jarraipena egingo du, haiek egiten direla bermatzeko Hezkuntza Ikuskaritzaren bidez.

2.– Baldin eta, ikasturtean zehar, gorabeheraren bat gertatzen bada diruz lagundutako prestakuntza-jardueren garapenean, dagokion Ikuskaritzako Lurralde Burutzak, komeni bada, egoki irizten dion txostena bidaliko dio Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritzari; hartara, zuzendaritza horrek agindu hau betetzeko beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

22. artikulua.– Ebaluazioa.

Kasuan kasuko Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketako lurralde-unitateak, ikastetxeek bidalitako amaierako memoria eta bere ustez eskatu behar duen beste edozein datu edo txosten oinarri hartuta, honako dokumentazio hau bidaliko dio ikasturtea amaitutakoan Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritzari.

- Ikastetxeen zerrenda. Bertan, onartutako jardueretan aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren adieraziko da, eta, gutxieneko helburuak lortu ez badira, aipatu egingo da espresuki.

- Prestakuntza-jardueren bakoitzean parte hartzen dutenen zerrenda. Hartan, pertsona bakoitzak guztira egindako ordu-kopurua adieraziko da, bai eta kopuru hori zer bertaratze-ehuneko den prestakuntza-ekintzako ordu guztiak kontuan hartuta. Gainera, prestakuntza-jardueren nork koor-

dinatu duen adieraziko da. Zerrenda horrek bat etorri behar du 19.3 artikuluan aipatutako behin betiko zerrendarekin.

23. artikulua.– Irakasleen parte-hartzearen ziurtapena.

1.– Irakasleek prestakuntza-jarduera bakoitzean izandako parte-hartzea, ontzat eman bada amaierako ebaluazio-memoriaren arabera, ofizios erregistratuko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak irakasleen berritze- eta prestatze-jardueraz daukan datu-basean, betiere 22. artikuluan aipatutako parte-hartzaile zerrenda oinarri hartuta.

2.– Prestakuntza-ekintza gaindituzat joko da, eta hala erregistratuko, bertaratzea % 80tik gorakoa izan bada.

3.– Ikasturte berean, ez zaio erregistratuko irakasle berari 105 orduetik gora deialdi honen bidez egindako prestakuntza-jarduerengatik.

4.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak irakasleen berritze- eta prestatze-jardueraz daukan datu-basea kontsultatu ahal izango dute interesdunek, indarrean dagoen legediaren arabera, eta bertatik Berritu eta Prestatzeko Jardueren Ziurtagiria lortu ahal izango dute.

24. artikulua.– Datu pertsonalak.

Deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak Lanbide Heziketako Irakasleen Prestakuntza izeneko fitxategian sartuko dira, eta fitxategi horren xedea izango da diru-laguntzetarako deialdi hau kudeatzea, eta deialdian parte hartzen duten pertsonen haren garapenaren berri ematea. Deialdian parte hartzen dutenek baimena ematen dute datu hauek tratatu eta argitaratzeko.

Fitxategi honen arduraduna Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritza da. Sarbide-, zuzentze-, eza-batze-, eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Hori guztia bat etorrita Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Lanbide Heziketa eta Ikaskuntzako Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako agiriak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honetan aurreikusi ez den guztirako, aplikagarria izango dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea –lege hori partez aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak–, eta laguntza eta diru-laguntza publikoak erregulatzen dituen araudia.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari, bi hilabeteko epean. Bi epeok agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Heziketako eta Ikaskuntza Zuzendaritzari baimena ematen zaio agindu hau ondo betetzeko eman beharreko xedapen guztiak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Agindu honek EHAAn argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 24a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2014ko uztailaren 2a, asteazkena

I ERANSKINA

FORMULARIOAK
ESKABIDE ORRIA
IKPP

(*) Nahitaezko eremuak.

Eskatzailea*

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak.

Titularra.

Erakundearen izena * _____ Telefonoa _____

Identifikazio agiria * _____ Zenbakia* _____

Eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea edo probintzia*

Ordezkarria.

Izena / Erakundearen izena * _____ Telefonoa _____

Lehen abizena _____ Bigarren abizena _____

Identifikazio-agiria * _____ Zenbakia * _____

Sexua.

Gizonezkoa Emakumezkoa

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

 Posta bidezkoa.

Helbidea * _____ Zka. _____ Sol. _____ Letra

PK * _____ Udalerria * _____ Probintzia * _____

Herrialdea *

 Elektronikoa.

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza*

 Euskara Gaztelania.

Abisuak jasotzeko datuak.

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak.

Bateraezintasun-adierazpena.

• Aitortzen dut erakunde eskatzailea ez dela laguntzarik jasotzen ari administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik xede eta helburu berbererako.

Berriazko adierazpenak.

Aitortzen dut erakunde eskatzaileak:

• Badakizkiela Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasteko baimena duten ikastetxeen-tzako prestakuntza-jardueretarako deialdiaren baldintzak.

• Diru-laguntza emateko exijitu eta kontuan hartutako baldintzetako batzuei eragiten dien edozein zirkunstantzia aldatuz gero, bere gain hartzen duela aldaketa hori Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketako eta Ikaskuntzako Zuzendaritzari jakinarazteko konpromisoa; baita, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu berbererako diru-laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eman badituzte, hori jakinaraztekoa ere.

Bestelako adierazpenak.

Aitortzen dut:

○ Erakunde eskatzailea(k):

• Ez daukala diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.

• Ez dagoela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko(1) lege-debekuen eraginpean.

• Betetzen dituela indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.

• Eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak benetakoak direla.

(1) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 5/2005 Legeak azken xedapenetatik seigarrenean dioenaren arabera.

Aurretik entregatutako dokumentuak.

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

_____ (e)n _____ (e)an.

(Tokia) (Data).

(Ordez kariaren sinadura).

2014ko uztailaren 2a, asteazkena

A1

JARDUEREN ZERRENDA

Ikastetxearen izen ofiziala:

Ikastetxearen kodea:

Lurraldea:

Zerrendatu prestakuntza-jarduerak lehentasunaren arabera eta bere ezaugarriak:

Zk.	Arloa	Jardueraren izena	Hizkuntza G/E	Irakasle kopurua	Orduak	Aurrekontua			Pertsona edo erakunde aholkulariaren izena
						Mat.	Aholk.	Guztira	

2014ko uztailaren 2a, asteazkena

A2

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN FITXA

(Aurkezten den prestakuntza-jarduera bakoitzeko fitxa bat beteko da)

Ikastetxearen izen ofiziala:

Ikastetxearen kodea:

Lurraldea:

Prestakuntza-jardueraren izena:

Prestakuntza jardueraren hizkuntza: Gaztelania Euskara.Ikastetxeen arteko jarduera da? Bai Ez.Beste jarduera baten jarraipena da? Bai Ez.

Zeinena? _____

Hurrengo ikasturtean ere jarraitzea aurreikusten da? Bai Ez.

Prestakuntza emango duen pertsona edo erakundea.

Eremu / esparru hauekin erlazionatuta:

Lanbide-arloa: _____

Heziketa-zikloa: _____

Modulua: _____

Justifikazioa eta helburuak.

(Helburu orokorraz gain, helburu zehatz eta neurgarriak planteatu behar dira).

2014ko uztailaren 2a, asteazkena

Edukiak.

--

Ebaluazio prozesua.

(Zehaztu nola eta noiz egingo den ebaluazioa, zeinak planteatutako helburuen neurketa jaso behar baitu).

--

Denboralizazioa.

Hasiera	Bukaera	Eskolak emango diren egunak	Eskola orduak eguneko	Orduak guztira

Partaide diren irakasleak:

Izen-abizenak	BBEH / BBET	Irakasten duen / dituen moduluak	Ikastetxea
		Irakasleen kopurua	

(BBEH) Behin-behinekoa.

(BBET) Behin betikoa.

2014ko uztailaren 2a, asteazkena

Koordinatzaileak:

(Formakuntza-jarduerara joango badira, aurreko taulan ere sartu behar dira).

Izen-abizenak	BBEH / BBET	Irakasten duen / dituen moduluak	Ikastetxea

Beharrezko materialak.

(Materialen zerrenda eta beharraren justifikazioa zehaztu behar da).

--

Aurrekontua.

Azalpena	Diru-kopurua		
	Zerga-oinarria	BEZa	Guztira
Eskola-emaileen gastuak edo prestakuntzan adituak direnenak			
Beharrezko materialak			
JARDUERA, GUZTIRA:			

A3

KLAUSTROAREN AKTA

Ikastetxearen izen ofiziala:

Ikastetxearen kodea:

Lurraldea:

_____ko irakasleen klaustroak bilkura egin du gaur, 2014ko _____aren __ (e)an, eta funtzionamendurako bete behar diren legezko baldintzak betez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeentzako prestakuntza-jardueretarako diru-laguntzen deialdiaren baldintzen arabera (_____(e)ko Aginduan daude ezarrita), ondokoa adierazten du: irakasle guztiek dutela aurkeztutako jardueren berri, eta irakasle guztiek beren gain hartzen dituztela jarduera horiek ekar ditzaketen ondorioak, hala irakasle bakoitzari parte-hartzaile izateagatik dagozkionak, nola ikastetxearen barne-antolaketari dagozkionak.

IDAZKARIA

(SINADURA)

(Ikastetxeen arteko jarduerak badira, parte hartzen duten ikastetxeen akta bana aurkeztu behar da).

2014ko uztailearen 2a, asteazkena

A4

ORDEZKARITZA EGILESTEA

IKASTETXEEN ARTEKO PRESTAKUNTZA JARDUERAK

Parte hartzen duten ikastetxeak.

Ikastetxearen datuak:

Izena:

Sozietatearen izena:

Ikastetxearen kodea:

Irakasle kopurua:

Herria:

Lurraldea:

Telefonoa:

Ordezkariaren datuak.

Izen abizenak:

NANa:

Sinadura:

Ikastetxearen datuak:

Izena:

Sozietatearen izena:

Ikastetxearen kodea:

Irakasle kopurua:

Herria:

Lurraldea:

Telefonoa:

Ordezkariaren datuak.

Izen abizenak:

NANa:

Sinadura:

2014ko uztailearen 2a, asteazkena

Ikastetxearen datuak.

Izena:

Sozietatearen izena:

Ikastetxearen kodea:

Irakasle kopurua:

Herria:

Lurraldea:

Telefonoa:

Ordezkestaren datuak.

Izen abizenak:

NANa:

Sinadura:

Guztien ordezkaria:

Goian azaltzen diren ikastetxeek honako hau izendatzen dute ordezkari, ikastetxeen arteko prestakuntza-jarduerako eskabidea egiteko:

Izen abizenak: _____

Ikastetxe honen ordezkari edo zuzendari gisa:

Ikastetxearen izena: _____

2014ko uztailaren 2a, asteazkena

B1

TXOSTEN EKONOMIKOA

Ikastetxearen izen ofiziala:

Ikastetxearen kodea:

Lurraldea:

1.– Gastuen ziurtagirien zerrenda.

Kanpoko erakunde edo pertsonak kontratatzeko gastuak					
	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Azalpena	Diru-kopurua (€)
1.					
2.					
3.					

Kontratazio gastuak guztira	
-----------------------------	--

Materialaren erosketa					
	Zenbakia	Data	Jaulkitzailea	Azalpena	Diru-kopurua (€)
1.					
2.					
3.					

Materialak guztira	
--------------------	--

Argibideak.

Honako datu hauek zehaztu behar dira:

- Zenbakia: egileak emandako fakturaren edo ziurtagiriaren zenbakia.
- Data: faktura edo ziurtagiria egin zen data.
- Egilea: faktura edo ziurtagiria jaulki duenaren izena eta abizenak edo sozietatearen izena.
- Azalpena: fakturan edo ziurtagirian agertzen den kontzeptua, eta argi geratzen ez bada, zehaztapena.

2.– Proiektuaren balantze ekonomikoa.

Behin betiko gastuak (Justifikatutako gastuen laburpena)	
Kontratazio gastuak	
Materialaren erosketa	

2014ko uztailaren 2a, asteazkena

Behin-betiko gastuak guztira	
------------------------------	--

Behin-betiko diru-sarrerak		
Berezko finantziazioa		
Finantziazio publikoa	Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzaren diru-laguntza (deialdi hau)	
	Eusko Jaurlaritzako sailak	
	Foru Aldundia	
	Udala	
	EUDEL	
	Estatuko Administrazioa	
	Europar komisioa	
	Bestelakoa	
Finantziazio publikoa guztira		
Behin-betiko diru-sarrerak guztira		

LAGUNTZARIK JASO EZ IZANAREN AITORPENA
--

Aitortzen dut erakunde eskatzailea ez dela laguntzarik jasotzen ari administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik xede eta helburu berbererako.

2014ko uztailearen 2a, asteazkena

B2 BIS

ASISTENTZIA KONTROLA

(Prestakuntza-jardueraren egun bakoitzeko kontrol-orri bat beteko da).

Ikstetxearen izen ofiziala:

Ikstetxearen Kodea:

Lurraldea/ Territorio:

Prestakuntza-jardueraren izenburua:

Ordu kopurua:

 EGUNARI DAGOKION ASISTENTZIA KONTROLA

	NAN	IZEN-DEITURAK	SINADURA
1			
2			
3			
4			

GARRANTZITSUA: NAN, izen edo abizen-erroreak zuzen itzazu datu-basean erregistratzeko.